

Juan Kruz Igerabide. *Haur korapiloak. Pamiela*

Ekaitz aurre
(*Eguraldi txarraren korapiloa*)

Mendia dator nigana,
elefante bat da,
elefantea da;
euri usain gozoa
gorputzean darama,
elefante bat da,
elefantea da:
globo antzera gora joan
eta astindu du bizkarra
elefantea da,
elefante handi bat da.

Korapiloen poemak

*Euri-aurreko hodeia mendi bat adineko elefantea da; euriaren zama darama bere baitan elefanteak; gorputza astindu eta euria guregana, zaparrada handia, bustia, usainduna...

Igarkizun baten moduan azaltzeko aukera ematen du poematxo honek, beste igarkizunekin batera elkartu eta errezitaldi baten kokatzeko.

*Liburuaren atal honetan agertzen diren beste hainbeste poemekin batera errezitaldi bat antola daiteke gelaz gela azaldu edota irratsaioetan erabiltzeko.

Inuitak (Eskimalak)

Inuit batek jalan zuloa egin
eta amua bota zuen;
amua trabatu eta inuita
tira eta tira hasi zen
baina ezin.

Beste inuit bat joan
zitzaion laguntzera
baina ezin.

Beste bat ere agertu zen
eta beste bat eta beste bat...
baina ezin.

Han bildu ziren milaka inuit
amuari tira eta tira, ilaran...
eta lurra irauli zuten
eta ipurdiz gora jarri.

*Poema hau oso ederra suertatzen da errezitatu eta antzezpen txiki bat egiteko.



Amodio poema 1

Zazpi zaku
bete nituen gauez
izarrez eta ilunez.

Zazpi zaku
bete nituen egunez
berunez eta urdinez.

Zazpitan zazpi zaku
bete nituen zeruz eta lurrez
eta nahastu nituen egunak gauez
eta nahastu nituen gauak egunez.

* Norbait maite dugunean, metatu egiten ditugu nahi bezala gustuko gauzak. Dena da ona, dena errepikatzen dugu mila eta mila aldiz eta ez dugu kontutan non hasten den bata non bestea...